Elgoibar, Mendaro eta Soraluzeko farmaziek bat egiteko akordioa indarrean jarri zen. San Bartolome jaietan izandako istiluetan Jose Mari Castañares eta beste zenbait pertsona erreduraz zauritu ziren. Irailean istiluak salatzen zituen manifestua kaleratu zuen Elgoibarko Udalak herritarrek sina zezaten. 1501 herritarrek sinatu zuen. Udala eta Ongarri Zine Kluba datozen lau urteotan aire libreko zinea eta zine kluba gestionatzeko akordio batera iritsi ziren. Urteko 1.600.000 pta.ko dirulaguntza jasoko dute. Kandido Txurruka aizkolaria izan zenari omenaldia egin zion Kalamua elkarteak, Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioak eta DEBEMENek antolatuta eta Kilometroen batzordeak eta Udaletxeko 650. urteurreneko batzordeak lagunduta. Elgoibarko Udalak presoak euskalerriratzearen aldeko mozioa onartu zuen, presoek legez duten eskubidea etxetik ahalik eta gertuen egoteko errespeta dadin. Azaroaren 22an inauguratu zen Ekain 11 proiektuaren erakusketa. Debako Ekain kobetako margoen birprodukzioan oinarrituz zirkuitu bat eratuko da Deba Beheko herrietan turismoa erakartzeko. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kaleratutako txosten baten arabera, Elgoibarko Udalaren 1994. urteko aurrekontua 1.162 milioikoa zen eta zorra 1215 milioikoa. Errosarioko Ama Birjinari ongi-etorria egin zitzaion abenduaren 7an Donostian itxuraberritzen egon eta gero. Isaak Loiola elgoibartarra martxoaren 3an Madrileko Kongresurako izan ziren hauteskundeetan, EAJren zerrendan 5. hautagaia izan zen. Luis M. Ezenarro Osoro apaiz elgoibartarrak idatzitako "Elgoibar: de las ferrerias a la m4uina herramienta" liburuaren aurkezpena egin zen. Sallobenteko auzotarrek, DEBEMENek, Udalak, Elgoibarko Izarrak eta Morkaikok Sargoateko erromeria berreskuratu zuten, duela 30 urte desagertu zena. Haizea emakume taldeak aurkezpena egin zuen herritarren aurrean. Helburua emakumeek gizartean aktiboki parte hartzea da. Iñaki Perez Armendiak Debako Tene Mujika eta Zumaiako Julene Azpeitia lehiaketetan 2. saria jaso zuen. Miren Gorrotxategik Donostia Hiria piano lehiaketan bigarren saria irabazi zuen eta lehenengoa Gipuzkoar onenari dagokionean. Andres Alberdik ertainetako ikasleei zuzendutako euskal gramatikaren inguruko liburua argitaratu zuen. Pello Arrietak "Elgoibarko ondare historiko-artistikoa: arkitektura zibila" liburua argitaratu zuen. Jon Suarez Barrutia elgoibartarrak "Kaixo Mirna" izeneko liburua kaleratu zuen.

GOX@KI
0,9ria
30,d0«..ah oia 2f/de Beivd Opt!
714~41,5 - 75 51 90 Weeptdam.

O V ICT OR A
IRAEGUI
MASAIA TERAPEUTIKOA
ETA DEPORTIBOA
ZORVtfAW eta
aPrF
BEkR/ONi
P. M. Urruzuno, 31 behea Tel: 74 07 70


Jai zoriontsuak eta Urte Berri on!
San Frantzisko, 60
Tel: 74 19 43


1-1Z̲aPuonanc7 iaraz
Muruamendiaraz
ELGOIBAR
Aruruaznenoiaraz yozolegicJ
jai yozo-yozocz. opa ofizL'zue
errifar Wrie ri3erri 012 /
San Bartolome, 34-35 Tel: 74 03 45

98

9C24017 Zari0121 SUCad ela 9/11Ve ,ZerPl On

— 71rerzy 674risbnas anJ._71appy VeivVear

gratie bei4nac-ien und ein Yufes Yeues a7;1- —

Yoyeux DCalef .93onne 71nnee

## Hizkuntz Soluzioak

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

IMH Eraikuntza
San Roke Auzoa, 1- P.K.37
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.(9)43 74 40 40 - Faxa (9)43 74 16 54
E-mail: ils@jetes

MH
ERREMINTA
MAKINA
INSItTuTuA

# KOPILAN ek

fotokopiak

fotokopiak

fotokopiak

fotokopiak

fotokopiak

**BARREN**

*agurtzen* du

**bere 5. urteurrenean**

**eta gure 10. urteurrenean**
**agur bero bat**
**bidaltzen diogu**
**Elgoibarko Herriari**

**Gabott Zadontsuak**

fotokopiak

txuri beltzean

koloreeta

laser eta bi aidetatik

anpliazioak
txikitzeak
enkuadernazioak
eta abar...



# 97



Azken 45 urteotan Parrokian egon eta gero, Salbatorearen irudia jatorrizko lekura itzuli zen, Txankakuara alegia.



A Ekainaren Ban inauguratu zen San Bartolome parrokia bost urte iraun duten berritzen obrak amaitu eta gero.

I NDUSTR1AS
tier01111,S.A
MAKINAE NEURRIRA
Manipulazioa ela Nluntaia • Makina Berezia
Broñidorak • Konlrol dimenIsionala
Jai alaiak igaro itzazne:
Donostia-Bilbe Errep. 53. km. - 20870 MENDARO - Tel. 75 50 00 Faxa: 75 5 I 62

"Oweeda
KAFETEGIA
*Zorionak eta urte I3erri On!*
San Inazio, 2 15. 74 27 22 ELGOIBAR



Ekainaren 22an Haundi futbol taldea 2B mailara igo zen Torrelavegako Tropezbn talcleari irabazi ondoren. Partiduaren ostean ongietorri beroa egin zitzaion Haundiri Plaza Haundian.

ETAk uztailaren 12an hil zuen Ermuko PPko zinegotzia zen Miguel Angel Blancoren heriotza salatzeko, kontzentrazioa egin zuten herritarrek Plaza Haundian. Ondoren, manifestazioa izan zen.



AZALCA ginf z
MARI KARMEN BERECIARTUA
Estetizista - Bisajista - Masajista
GORPUTZ *eta* AURPEGIRAKO tratamendudan azken berrikuntzak
Trenbide kalea, 3, behea (estazio parean) - Tel. 74 03 19

ETXEPE
MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
L011 BEREZ1AK
153 Posta kutxatila
Ibaitarte kalea, 2
74 12 97 - 74 06 64
Faxa 74 43 21



Abuztuko San Bartolome jaietan zabaldu zituen ateak Elgoibarko Gaztetxeak. Udal Gazte Batzordea, Gazte Asanblada eta Gakoa plataformaren arteko elkarrizketen ondoren, Jarbe enpresako jabeekin akordio batera iritsi ziren eta Gaztetxea aipatu enpresako lokaletan kokatu zen.



San Bartolome bezpera egunean Muguruzatarren etxeko arkua inauguratu zen. Alberto Ibañez eskultoreak berreskuratutako arkua Giza Eskubideen enparantzan kokatu zen.


Taileres ALBE

KANPO ETA BARRUEN REKTIFIKATUAK - PLANEATUAK
CRUSHING BIDEZ PERFILEN PLANEATUAK
BROTXATUAK - MAKINARIA KONPONKETA

Trenbide kalea, 21. Tel. 74 32 86. ELGOIBAR (GIPUZKOA)



Iaco Egea elgoibartarra ekonomia eta justizia sailburu izendatu zuten irailaren 30ean.







A

Abenduaren 12an bota zuten Madalan kokatuta zegoen Alkortako etxea. Inguru horretan etxebizitzak egingo dira epe motzera.

eta• •

DEBEMEN elkarteak "Elgoibarko baserriak gida liburua" kaleratu zuen. Jasone Osoro egileak, herriko 200 baserri inguru bildu zituen liburuan. Martxoaren 16tik aurrera elizako kanpaiek berriz jotzen dute 7 urtez isilik egon eta gero. Elgoibarren babes ofizialeko etxebizitzak egiteko plan partziala onartu eta eraikitzeko tramite administratiboak martxan daude. Guztira 165 etxebizitza eraikiko dira eta 7 eta 11 milioi bitarteko prezioa izango dute. Txomin Zabaleta egoibartar gaztea apaiz ordenatu zen uztailaren 13an. Legazpiko parrokian ari da lanean. Xabi GOrnez apaiza, berriz, Elgolbar laga eta Eskoriatzara joan zen parroko. AEK euskaltegia eta Udalaren artean akordio bat sinatu zen. Aurrerantzean, AEK-n ikasi nahi duten ikasleek dirulaguntza jasoko dute Udal Euskara Batzordetik. Ur-depuradoraren behin-betirako kokapena Apraiz baserriaren inguruan izatea erabaki zuen Aldundiak. Errota mantentzeko konpromezua hartu bazuen ere, Aldundiak ez du ziurtatu kokapena bere horretan geratuko den. Pedro Muguruzako Batzokiak ateak itxi zituen 20 urtez martxan egon eta gero. Hasier Etxeberria elgoibartarrak "Karramarroen aztarnak" izenburuko liburua kaleratu zuen. Bertan, Zumaiako Julene Azpeitia eta Bilboko Gabriel Aresti lehlaketan saritutako ipuinak irakur daitezke, besteak beste. Ongarri argazki kolektiboak, "Aurrez aurre" izeneko argazki erakusketa egin zuen abenduan. Euskal argazkilaririk onenen lanen erakusketa izan zen. Arnaldo Otegi HBko behin-behineko Mahai Nazionaleko bozeramale izendatu zuten Mahai Nazionaleko kide guztiak gartzelaratu ondoren. Jon Etxabe abokatu elgoibartarrari 300.000 petako isuna jarri zioten bezero bat euskara hutsean, inolako itzulpenik gabe defendatzeagatik. Ricardo Gorriti, Bittor Zubiaurre eta Txomin Mujikak 25 urte beteko dituzte abenduaren 25ean dultzaina jotzen lehen aldiz atera zirenetik.

XABIER
So?
ILEAPAINDEGIA
deat't e9•• z
eta endua
gabon
Zrionistulk
efa 'Urte
TeniOn.
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

PINTXO HOTZAK, BEROAK
ETA KAZUELATXOAK
ALDAPA TABERNA
Ondo pasa
Gabon Jaiak!
Santa Klara -22
☎ 74 26 32

00 e7Aratu

zcihar po erqk




liburu bateanbi un .k

**Non eros dezaket?**

BARREN, Elgoibarko Iza a

Gorostiza eta Pitxintywn

**Preziou** r1-000Pta

BARREN
5. URTEURRENA

*Prelrak zaharren afala, inonyo duclarifYahe arraasla lianoria izan duen s4zioa da. Zos/ urle Aaue-lan aryazili enefan ,00li74 alercz Jira, oso zaiiaz7ydr ha hu4, eta ez liain zaliarra 6esie galzu4. ..911i-fenen aplean auterailela eyin efa lihuru 6afean 1ildu clithyu. 2'sXo izan c/ira, .i2ala ere, liguruan sar-lzeri I, izan ez ofilu unaL.: 7ieste 4alean izanyo da. 13i orriaide imuelan IllUruan ayerizen ez oiren 61 aryaz-/ei 6erresuralu drlclyu, merezi zolefa usle yenuelai(o. .7e.sluaL ayerfu ziren mooruan erreprocluzilu ofituyu.*



Aste honetako erretratua **Maite Izagirrek** lagatakoa da. Maitek esan digun bezala, "1935. urteko estanpa ekologiko bat" da. Altzolako neskatila kuadrila bat omen da. Eguraldi ona aprobetxatuz, bokadiloak eta ardo botilak hartu eta gustura abiatu ziren zelairantz. Zelaitik bajatu zireneko erretraturik ez digute ekani baina dudarik ez dago ikustekoa izango zela.

Zeintzuk diren belar gainean meriendatzen ari direnak?
Goiko ilaran ezkerretik hasita: **Pilar Bernedo, Bitxori Lariz (Altzolabe) (t), Benita Bernedo, Juanita Isasti** eta **Francisca Lariz.**
Behekoan: **Maritxu Irusta (t), Agustina Irusta (t), Agapita Soraiz** eta **Anjelita Bernedo.**

*1994ko uztailaren 8an argitaratua.*



**74CU'da**

*1996ko abenduaren 16an hil zen 26 urte zituela.*

## *I. URTEURRENA*

*Aitaren kide zinen zu Alex,*
*Amaren seme kuttuna*
*beste guztiok ere benetan*
*estimatu zaituguna*
*nahiz ta betiko faltako zaigun*
*zure hitzen oihartzuna*
*zure izena eta izana*
*ez degu ahaztuka laguna*
*zure oroimenak beteko baitu*
*zuk utzi dezun hutsuna.*

Zure koadrilakoak

# RRETRATUU Z AHARRA



Argazkiu hau "Kamirierokua"n aterata dago, 40. hamarkada inguruan. Atzean dagoen etxebizitza "Bar Kamiñerokua" dela esan digu Pedro Sodupek. San Lorentzoko kuadrila hat ageri zaigu erretratuan, patxada onean eta lagunarte giroan.

Zein diren? Hona hemen izen-abizenak:

Atzetik hasita, ezkerretik eskuinera: Domingo Badiola, Kamiñeroko neskamea, Eugenio Astigarraga eta Meltxor Gurrutxaga.

Eserita: Lorentzo Esnaola, Paco Aizpurua, Manuel Sodupe (1°) eta Pedro Gorriti (t).

*1996ko urriaren 8an argitaratua.*


**PILAR arrandegia**



*Ondo pasa Gabon Jaiak eta Urte berri On!*

San Frantzisko 30 • Tel. 74 18 35 • ELGOIBAR

**USATORRE Taberna**

*Zoi-iotrai ea &19.'1 aff./*

San Antolin. Tel. 74 17 99

**ZUBACOR, S. L.**

Ibaitarte kalea. 11
Tel. 74 08 44
Fax 74 26 66

*aitala,asa Ozioij* ***juat/***

50 Posta kutxa
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)



### ANGEL BASTERRETHEA

"Elizara ez joateagatik gazteek ez dutela sinesten esatea asko esatea da"
(1995/03/24 I01 zkia.)



### JON EUGI

"Euskara jakin eta hitz egiteaz oso harro nago. Euskalduna izateaz, alegia. Hori niretzat handia da. Parekorik ez duena".
(1995/04/28 105 zkia.)



### CONSTAN Nutlu

"Praktikak eta belarrondokoak jasotzeak egiten dute kazetaria. Esperientziak gero eta konfiantza gehiago ematen dizu".
(1995/05/19 108 zkia.)



### EDUARDO OSORO

"Pentsa nola sentitu nintzen euskaraz alfabetatu beharra neukala entzun nuenean. Gurasoengandik jasotako hizkuntzan analfabetoa!"
(1995/06/30. 114 zkia.)



### HARNIELO URDANGARIN

"Ibaiari bizkarra eman diogu, eta gure etxeotan nahi ez duguna irensteko eta garraiatzeko zabortegi bihurtu dugu".
(1995/07/14. 1116 zkia.)



### ROLDO LIZARRALDE

"Nire hilobian jartzeko hilarria nik neuk egin dut"
(1995/09/08 119 zkia.)



### PEPITA PEREZ-CORTES

"Albako dukesarentzat eta Belgikako Fabiolarentza kozinatu izan dut".
(1995/10/20 125 zkia.)



### ROSARIO ANDONEGI

"Pentsa daiteke pobrezia nazioarteko arazo estrukturala dela eta gure ahalegin xumeak "partxeak" besterik ez direla. Baina beharrean dagoenak ezin du estruktura noiz aldatuko den zain egon".
(1995/10/27 126 zkia.)



### UNAI VILLENA

"Poesiak bidaltzea neskak konkistatzeko ez da modernoa".
(1996/6/21 157. zkia.)



### ENRIKE LARRAISIAGA

"Bidairik apasionanteena nor bere buru barrura egiten dena da".
(1996/6/21 157. zkia.)



### AGUSTIN IRUSTA

"Kaletarrek ez dabe baserrirako bidia ikasi".
(1996/7/5 159. zkia.)



### JON AURREKOETHEA

"Jakitzia gustatzen jata eta horretarako ikasi ein bihar da".
(1996/10/25 169. zkia.)



### EULOGIO ASTIGARRAGA

"Hildakuak ez dabe ezer eitxen. Bizidunei eduki bihar jakue bildurra".
(1996/10/31 170. zkia.)



### LUCIA CASQUERO

"Garapen pertsonala da iraultzarik garrantzitsuena".
(1996/12/20 177. zkia.)



### PAKI LUCHA

"Droga berriak sortuko dira zaharrak ordezkatuz, baina aldaketa sozial, ekonomiko eta kulturalek irauten duten heinean, drogen gehiegizko erabilera ere existituko da".
(1996/12/20 177. zkia.)



## ANTXON IRIONDO

"Gabonak ez dira guztiontzako zorionaren motibu. Beste zorion iturri batzuk badaudela sinesten dugunok gure bidetik jarraituko dugu, txantajea eta inposaketatik aldenduz".
(1997/01/10 178 zkia.)



## ANDRES ELIZONDO

"Ezkondu nitzanian telebisiva kendu naban. Batetik, komunikazioa apurtzen dabalako, bestetik, manipulazio hutsa dalako eta hirugarrenik, imajinazioaren aurka dagoen gauzarik indartsuena dalako".
(1997/01/24 18(l zkia.)



## IMANOL LARRMAGA

"Ez dakitx euskaldunok batzen gaitxuena banatzen gaitxuena baino garraintzitsuagua dan. Izan ere, banatzen gaitxuen arrazoi askotxo ikusten dot herri honetan".
(1997/01/31 181 zkia.)



## EDURNE LASA

"Ezingo nuke utzi antzerkia. Telebistan gustura sentitzen naiz baina gorputz guztiarekin komunikatzea gustatzen zait eta telebistan oso mugatuta zaude"
(1997/03/07 186 zkia.)



## MILA OSORO

"Hitz egiten eta entzuten ikasi behar dugu, edonorekin hitz egiten eta edonork esaten duena entzuten, esaten duena gorria, zuria edo beltza den begiratu gabe".
(1997/03/14 187 zkia.)



## XABI ComEz

"Elgoibartik gauza asko eramango ditut: gure artean ez dauden lagunak, poliki-poliki eraikitzen joan den eliz elkartea eta jendea, adiskidetasuna".
(1997/03/14 187 zkia.)



## JOSU MERINO

"Goseak, hotzak eta bakardadeak asko irakasten dute. Hemen daukagun guztiaz disfrutatzen ikasi dut".
(1997/04/04. 189 zkia.)



## MARI SOL ARAKISTAIN

"Batzuei billlurra ematen diue odola ateratziak baina parian tokatu arte jendia ez da konturatzen odolan biharraz"
(1997/04/25. 192 zkia.)



## ARANTHA ARMENDIA

"Gazteok dugu bizitzako eta gaixo guztiei igorri behar diegu pa'hori".
(1997/05/9 193 zkia.)



## SABIN OREGI

"Boluak hildakuak bezela dia, ahalik eta azkarren eman bihar jakue lurra".
(1997/06/6 197 zkia.)



## JOSE LU1S BELLOSO

"Apaiz artian baino adiskide hobeak ditut apaiz ez direnen artean".
(1997/6/27 200 zkia.)



## IVAN SOLAS

"Udako ligeak nahiko onak dira baina, zoritxarrez, batzuek ez dituzte ez udako ez neguko ligeak izaten".
(1997/7/11 202 zkia.)



## PACO EGEA

"Gazte langabetu asko dago eta nire esku dagoena egin nahi dut irtenbidea topatzeko".
(1997/10/3 208 zkia.)



## XABIER LOPEL

"BARRENen asko ateratzen naiz eta horregatik arrakasta haundia daukat eskolan".
(1997/10/10 209 zkia.).



## GEMMA AGIRREGOMIIKORTA

"Buruan dakaten ilusiva eta gogua muskuluen indarra baino askoz fuertiauak diala konbenziduta nao".
(1997/10/24 211 zkia.)

# Zer oparituko zenioke BARREM 5. urtebetetzean?



**LOURDES JAUREGI**
40 urte, etxekoandrea

Jai handi bat. Ez bakarrik BARRENentzako, herri guztiak parte hartzeko jai bat oparituko nioke. Egun oso bat musikarekin eta parranda giroan.



**OSCAR MARTINEZ**
10 urte, ikaslea

Kaxa handi-handi bat, lazo gorri batekin eta barruan kamara eta ordenadore berrixak, Eta tarjeta handi batian herritar guztien zorionak eta 100 urte bete ditzala.



**BLAS MARTINEZ**
46 urte, espezialista

Oopari bat baino gehiago, desiorik onenak opa dizkiot. Osasun ona izan dezala urte askoan gure etxeetara heltzen jarraitu ahal izateko. Eta Udalak dirua ematen jarraitzeko.



**LAURA MAESTRE**
20 urte, ileapaintzailea

Tarta izugarri bat egingo nuke bost kandelarekin BARRENeko guztientzat eta herri guztiarentzat. Eta ospakizuna herritar guztien artean egitea.



**CRISTOBAL LENDIRIEZ**
39 urte, metalurgikoa

Lehendabizi zorion bero bat lan oso ona egiten ari delako herriarentzat. Zerbait oparitzekotan, heharko balu, herritar hakoitzak zerbait aportatzea ekonomikoki.



**BEGOÑA ASTIGARRAGA**
50 urte, etxekoandrea

Oporrak ez behintzat, jendia ostiralero zain egoten dalako noiz ailegauko irakurtzeko. Gutxienez, heste bost urte ein ditzala desioko nioke.

ritiMEND111[1]

AFARI MERKEAK
Gure berezitasunak:
- Kazuelatxoak
- Olagarroa
- Haragia erreta

BODEGA
Zorlord
eJtQ afk 80-1-1

P. MUGURUZA, 20 TEL: 74 25 00 ELGOIBAR



TINDATEGIA
Zorionak!
Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91 - ELGOIBAR

GUZTIONA, HERRIARENA, ZEUREA DEN

*ELGOIBARKO HERRI INSTITUTUAK*

*EGUBERRI ON*

*ETA URTE BERRI ZORIONTSUA OPA DIZUE!*

***Urte arteko mugan***
***hona Eguberri***
***Gabon giroan gaude***
***auzo eta herri,***
***esku eta bihotzak***
***luzatuz elkarri***
***zorionez gozatu***
***bakearen berri.***





# Aurrekontuak ez dira
# 1144444 - - karaucat

*i lgoibarko Izarra eta BARREN astekariaren diru kontuen ardura gerentziak darama. Kasu honetan, hiru pertsonek osatzen dute gerentzia. Horietariko bat soldatapeko Iangilea da eta beste biek lan profesional militantea egiten dute.*



## Rafa Alvarez eta Mari Anjeles Ortuoste

- Burukomin handia ematen dute BARRENeko dirukontuek? - Bai, ze beti zaoz ze dirulaguntza emango daben zain, gastuak zela kontrolau, dirua ailegauko dan ala ez, urtia zela amaitxuko doun... Ardura hori badakazu.

- Daramazuen denboran zein aldaketa igarri duzue? - Dirulaguntzak badakigu ez diala ixoko, nahikua dakagu mantentziakin. Espero dana da publizidadian hobetzia, baina konpetentzia asko dao eta jendiak ere ez dau lehen bezela eitxen. Gainera, gastuak ixo eitxen dia urtero: pertsonal gastuak, inbertsivak... Diru sarrera propio berrixak topau bihar diaz.

Lan profesionala egiten duzuen militanteak zarete. Konpentsaziorik? - Proiekto serixua da eta lana eskatzen dau, baina sin.isten dozun zeozertan gustura laguntzen da. Satisfaziva ematen dau gure izkutuko lana ondo bideratu eta langile profesional onek produktu ona ateratzen dabela ikustiak.

## Amaia Martin, administraria



- Zein da zure lana, Amaia? - Publizidadian fakturaziva, harpidetzen datu basia, etiketak etaratzia, kontabiIidadia...

- Lan asko ematen al du? - Kanpotik ematen dabana baino gehixo. Batez ere, publizidadian fakturazivak. Ni oin dala bi urte hasi nitzan hemen lanian. Aurretik BARREN jasotzen naban etxian baina ez nakixan etaratzeko zelako dana dauan. Lan profesionala eta konstantia da.

| AZALPENA | GASTUAK | SARRERAK |
|---|---|---|
| **Pertsonal gastuak** | **7.700.000** | |
| **Funtzionamendu gastuak** | **932.000** | |
| **Inbertsio gastuak** | **1.600.000** | |
| **Gastu mekanikoak** | **6.550.000** | |
| **Zabalkunde gastuak** | **879.750** | |
| **Sarrera propioak** | | |
| **Publizitatea** | | **8.125.000** |
| **KUTXA** | | **300.000** |
| **Diruiaguntza publikoak** | | |
| **Elgoibarko Udala** | | **5.000.000** |
| **Foru Aldundia** | | **2.000.000** |
| **Eusko Jaurlaritza** | | **1.956.000** |
| *Guztira* | *17.661.750* | *17.381.000* |
| **Pertsonal gastuak** | **10.765.452** | |
| **Funtzionamendu gastuak** | **1.150.000** | |
| **Inbertsio gastuak** | **1.100.000** | |
| **Gastu mekanikoak** | **7.800.000** | |
| **Zabalkunde gastuak** | **1.300.000** | |
| **Sarrera propioak** | | |
| **Publizitatea** | | **10.700.000** |
| **KUTXA** | | **300.000** |
| **Dirulaguntza publikoak** | | |
| **Elgoibarko Udala** | | **5.000.000** |
| **Mendaroko Udala** | | **400.000** |
| **Foru Aldundia** | | **2.000.000** |
| **Eusko Jauriaritza** | | **2.205.200** |
| *Guztira* | *22.115.452* | *20.605.200* |
| **Pertsonal gastuak** | **12.737.642** | |
| **Funtzionamendu gastuak** | **1.696.012** | |
| **Inbertsio gastuak** | **839.443** | |
| **Gastu mekanikoak** | **8.843.561** | |
| **Zabalkunde gastuak** | **1.319.334** | |
| **Sarrera propioak** | | |
| **Publizitatea** | | **12.149.772** |
| **KUTXA** | | **300.000** |
| **Dirulaguntza publikoak** | | |
| **Elgoibarko Udala** | | **7.500.000** |
| **Mendaroko Udala** | | **600.000** |
| **Foru Aldundia** | | **2.000.000** |
| **Eusko Jaurlaritza** | | **2.573.700** |
| *Guztira* | *25.435.992* | *25.123.472* |
| **Pertsonal gastuak** | **13.204.364** | |
| **Funtzionamendu gastuak** | **1.327.424** | |
| **Inbertsio gastuak** | **256.645** | |
| **Gastu mekanikoak** | **10.919.375** | |
| **Zabalkunde gastuak** | **1.342.701** | |
| **Sarrera propioak** | | |
| **Publizitatea** | | **13.138.400** |
| **KUTXA** | | **300.000** |
| **Danobat** | | **500.000** |
| **Dirulaguntza publikoak** | | |
| **Elgoibarko Udala** | | **7.500.000** |
| **Mendaroko Udala** | | **600.000** |
| **Foru Aldundia** | | **2.519.079** |
| **Eusko Jauriaritza** | | **1.976.221** |
| *Guztira* | *27.050.509* | *26.533.700* |

*BARRENek ez luke ateratzerik izango herriko enpresek, dendariek, elkarteek etab.ek publizitaterik egingo ez balute. Euren aportazioa funtsezkoa da astero BARREN zuen etxeetara heldu ahal izateko. Eurei eskerrak gure lana zuei azaltzea posible zaigu. Herritarrek gugan jarritako konfidantza horren lekuko izan dira bost urte hauetan BARRENen lan egin duten publizistak. Euren hitzek baieztatzen dute esandakoa.*

## Amaia Lelaristi



"1992ko abendua eta 1993ko urte hasierako egunak oso intentsoak izan ziren. Harro nengoen BARREN bezalako proiektu bateko kidea izateagatik. Beldurra ematen zuen asteroko argitalpen bat kaleratzeak "itxuraz" ezer garrantzitsurik gertatzen ez zen herri batean. Dendari batzuen argumentuak gogoan ditut oraindik: maiztasuna zela, publizitatearen efektiboatsuna, aldizkaria euskara hutsean izatea,... oztopo gehiegi hasierako publizitate inodulo txiki haiek lortzeko.

BARRENeko lantaldea kariño handiz gogoratzen dut, -zoro xamarrak batzuentzat, ausartak besteentzat-, baita ere zein ilusiorekin ekin genion gure ideiari. Eskertzekoa da, benetan, herritarrek gugan jarri zuten konfidantze.

## Nekane Etxaniz



"1993ko uztailean hasi nintzen BARRENeko publizitate atalean lanean eta bi urte eta erdi egin nituen bertan. Ordurako herrian ezaguna zen BARREN, horregatik lanik gogorrena eginda zegoela esango nuke, ezagutzera ematea, hain zuzen. Hala ere, oraindik asko zegoen egiteko eta nire lana horixe izan zen, poliki-poliki herriko publizitatea lantzea. Lan honi esker, nire herria hobeto ezagutu nuen eta jende asko ere bai. iendearekin egunero tratatu behar duzu eta ikusten duzu momentu onenetan eta momentu txarretan nola hartzen zaituen jendeak.

Publizitatea diru-sarrerarik inportanteena da BARRENentzat eta eskertzen dut astero-astero publizitatea egin dutenen esfortzua. Askotan kolaboratzeagatik egiten da eta horiei esker, bost urte eta gero, BARRENek hor jarraitzen du".

## Miryam Aldazahat



"BARRENen izan nintzen garaiaren oroitnena oso hurbil daukat oraindik. Eta horren froga da, noizean behin, orduan geunden neskak afaritxo bat egiteko elkartzen garela eta oso ondo pasatzen dugula. Bestalde, profesionalki, gauza asko ikasi nituen garai hartan eta, ondorioz, asko zor diot BARRENi. Komertzial bezala aritzeko, eskola oso ona da BARREN".

## Miren Moreno



"BARRENera orain dela gutxi etorri naizen sentsazioa dut. Ale bakoitza, aste bat. Aste bakoitza hiru egunetako tentsioa bihurtzen da. Tentsio horiek, ordea, lantaldean bizi dugun giro jatorrari esker desagertzen dira. Lan gogorra da BARRENeko publizitatea saltzea. Hala ere, herritarren harrera beti izaten da ona. Lerro hauen bidez, lan hori egiten lagundu duzuen herritar guztioi eskerrik beroenak Iuzatu nahi dizkizuet.

Eskertzekoa, nola ez, nire aurretik publizitate lanean egon diren hirurek egindako guztia. Orain nire txanda da. Erraza ez dela badakidan arren, eurak bezain ondo egitea espero dut".

# Direnak eta izan direnak



1992ko abendua. BARRENeko lehenengo lantaldea. Ezkerretik hasita, atzean: Amaia Leiaristi publizitate arduraduna eta Ainhoa Lodoso kazetaria. Behean, Alberto Agirreazaldegi zuzendaria, **Maite** Rementerla maketazailea eta Itziar Agirregomezkorta zuzendaria.

1 an jaio zenelriBARREN o dtik

asko aldatu dira, bai barrutik, baita kanpotik ere. Lehenengo urratsak Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokalean eman ziren. Garai hartan, zuri-beltzeko portada larrosa hura hiru langile profesionalek egindako lanaren ondorioa zen, eta guztiaren zuzendaritza musutruk aritzen ziren bi pertsonek zeramaten. Gaur egun, aldiz, kolore biziz kaleratzen den astekariaren nondik norakoak lau langile profesionalek zehazten dituzte Nafarroa Plazako lokalean.

Halere, BARREN astero ateratzen bada, lantalde profesional baten lanari esker ez ezik, hainbat eta hainbat kolaboratzaileri esker ere bada. Izan ere, duela bost urte hasitako lana gaur egun beste batzuek jarraitzen dute. Tartean ere izan da jenderik eta ondoren beste batzuen txanda izango da. Orri batean ezin izango ditugu guzti-guztien izenak aipatu, baina lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu denei eskerrik beroenak emateko. Izan ere, lan-taldea soidatapekoek eta borondatezko aportazioa egiten dutenek osatzen baitute.



1997ko abendua. BARRENeko gaur egungo lantaldea. Atzean, Miren Moreno publizitate arduraduna, Iasone Osoro kazetaria eta Ainhoa Lodoso zuzendaria. Behean, Mikel Cornejo maketatzallea.





ARANBARRI

Grua eta plataformadun garraioa

Tel: 74 02 42 Tel. mugIkorra: 908 77 06 37 ELGOIBAR


Juan Mari Uranga
Banatzaile ofiziala
• Gailur Ardandegie
Txapel
Txapel
Basarana
20
Solar
Gailur
Cavas Hill
Gure mahastietan landutako aleak
zuzenean bodegara.
Bodegatik mahaira zuzenean.
San Inazio, 3 behea
Tel: 74 33 25 • Mugikorra: 929 42 66 16

# Juaristi

Santa Ana, 16 Elgoibar

Tei: 74 29 94

a r o ziagukhi




- LEIHSV

Egurra - aluminioa

Aluminioa

PVCa

WARifirAIRU

ENPL1TRATUAK

XTTENK

TARIIVIAK



# HERRI ESKOLA



*Eguberri*
*eta Urte berri On!*

Belardenda

# KEMEN

*Estuasuna, antsietatea, depresioa, lo eza, tabakismoa, loditasuna, fobiak,... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!*

**NATUROPATA - Programazio neurolinguistikoa (Practificcioner eta Masterra) - MASAJEA - REIKI - Osatze naturalaren USUI sistema**

San Bartolome 25 • Tel: 74 40 31 • ELGOIBAR

## HERRI-GAIN ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(Tr 74 30 40) ELGOIBAR

# Aterpe

TABERNA

lagunarteko
afarietarako leku
aproposa
1014tteif hi

San Roke auzoa 5. 1T 74 25



•Eramateko
OILASKO ERREAK
•Hobe aurrez
eskatuz gero

# Orbea

Kafetegial

Zorionak
eta
Urte Berri
On!

San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

## 24 asteazkena

**11:00 OLENTZERO**
Irteera Madalatik
**15:30 NAGUSIEN OLENTZERO**
Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Gestorak
**19:00 BANDAren GABONETAKO KALEJIRA**
Geldialdiak Kultur Etxean eta Parrokian

## 25 osteguna

**19:30-22:15 ZINEA**
"Cara a cara"

## 26 ostirala

**19:30 KOLDO LIZARRALDEren LIBURUAREN AURKEZPENA**
"Apunte etnografikoak II"
Kultur Etxean
**22:30 BERTSO JAIALDIA**
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra
**22:30 KONTZERTUA**
Pleasure Fuckers eta Hot Dogs.
Gaztetxean

## 27 larunbata

**8:30 GABONZAHAR AZOKA**
Plaza Handian
**13:30 GAZTA, FRUITU ETA BARAZKIEN SARI BANAKETA**
Udal Areto Nagusian
**18:00 PLAZARA DANTZARA IKUSKIZUNA**
Plaza Handian
Antolatzailea: Haritz dantzari taldea
**19:00 PARROKI ABESBATZAren KALEJIRA**
**19:30-22:15 ZINEA**
"Cara a cara'
**22:30 KONTZERTUA**
Bad F-Line eta Ekok
Gaztetxean

## 28 igandea

**14:30 BAZKARI HERRIKOIA**
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte Asanbalda
**16:30 ZINEA**
"La dama y el vagabundo"
**19:30-22:15 ZINEA**
"Cara a cara"

## 29 astelehena

**10:00 JOLASEN SUPER MARATOIA**
Ikastolako frontoian
Antolatzailea: Atxutxiamaika
**19:00 MUGERZA KROSAren AURKEZPENA**
Udal Areto Nagusian
Antolatzailea: Ego-Toki Elkartea
**19:30-22:15 ZINEA**
"Cara a cara"

## 30 asteartea

**10:00 DANTZA JAIALDIA**
Institutuko gimnasioan
Antolatzailea: Atxutxiamaika

## 31 asteazkena

**8:00 AIZKORRIRA IRTEERA**
Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko
**10:00 EIBARko PARKERA IRTEERA**
Plaza Handian elkartuko dira
Antolatzailea: Atxutxiamaika
**17:30 ITXAROPENA eta SORALUZEKO EZOZIKO AMA ABESBATZAREN KONTZERTUA**
Parrokian

# 1998 URTE BERRI ONI

## 2 ostirala

**22:30 ANTZERKIA**
Taldea: Patro Teatro
Antzezlana: "LeeciOn de orgasmo"
Gaztetxean

## 4 igandea

**11:00 JUAN MUGERZA MEMORIALA**
Mintxetan
Antolatzailea: Ego-Toki Elkartea
**19:00 DOVER taldearen KONTZERTURAKO AUTOBUSA**
Izen-ematea: Oraikon
Irteera King-Kongean

## 5 astelehena

**17:00 JAIOTZA BIZIDUNA**
Plaza Handian
**18:00 ERREGE KABALGATA**
Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Katekistak

## asteartea

**10:15 BANDAren KALEJIRA eta SAN LANZAROn EMANALDIA**
**11:30 HAURREN MEZA ERREGEEKIN**
Parrokian
**12:30 BANDAren KONTZERTUA**
Herriko Antzokian

## TXANDAK

### FAR MAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 24 | Etxeberria | Anduaga |
| | (Errosario) | |
| 25 | Anduaga | Anduaga |
| 26 | Bidasolo | Bidasolo |
| 27 | Etxeberria | Zabaleta |
| | (Errosario) | |
| 28 | Etxeberria | Zabaleta |
| | (Errosario) | |
| 29 | Etxeberria | Etxeberria |
| | (Santa Ana kalean) | |
| 30 | Etxeberria | Anduaga |
| | (Santa Ana) | |
| 31 | Bidasolo | Escala |
| 1 | Escala | Escala |
| 2 | Bidasolo | Bidasolo |
| 3, 4 | Etxeberria | Etxeberria |
| | (Santa Ana kalean) | |
| 5 | Anduaga | Anduaga |
| 6 | Etxeberria | Etxeberria |
| | (Errosario kalean) | |
| 7 | Zabaleta | Zabaleta |
| 8 | Etxeberria | Etxeberria |
| | (Errosario kalean) | |
| 9 | Escala | Escala |

**ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38**
**ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42**
**ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84**

### OKINDEGIA

**25 Osteguna Ez dago**
**28 Igandea Eizagirre**
**1 Osteguna Eizagirre**
**4 Igandea Fotero**
**6 Asteartea Zabaleta**

**Elgoibarko EAJ-PNVk**
**jai zoriontsuak opa dizkizue**
**elgoibartar guztioi**



EAJ PNV

P. M. Urruzuno, 10
Tel. (943) 74 37 66
20870 ELGO1BAR

Sukalde eta bainurako altzariak

# Movellán



## Zure neurrira egindako proiektuak

## estilo guztietan

## Klasikoak • Modernoak • Rustikoak

## Behar duzun soluzioa daukagu

ıı<re'ati bitateia n
Ika lita te.a n
Aka batueita n
IN1 urrie.ta n
McDloreieitan
ıı<c)n posiziele.ta n



